



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



Lurralde-txostena:

Gipuzkoako goi-mailako hezkuntza-erakundeen ekintzailatza mailaren azterketa



GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



tecnun
Universidad
de Navarra
Escuela de Ingenieros

EDUKIEN TAULA

1.	SARRERA	1
2.	GOI-MAILAKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEEN EBALUAZIOAREN AZTERKETA.....	4
2.1	Fakultate ez teknologikoak.....	4
2.2	LH zentroak.....	12
2.3	Fakultate teknologikoak.....	20
2.4	Hiru erakunde moten konparatiboa	28
3.	EMAITZEN AZTERKETA ESTATISTIKOA	35
3.1	Erakundeen arteko aldeen azterketa.....	35
3.2	Korrelazioen azterketa.....	51
4.	ONDORIOAK	55
A ERANSKINA: FAKULTATE EZ TEKNOLOGIKOEN BERARIAZKO EMAITZAK		58
1.	LEGE- ETA ADMINISTRAZIO-TESTUINGURUA	58
2.	ENPRESA-TESTUINGURUA.....	59
3.	EKINTZAILETZARAKO FUNTSAK.....	60
4.	FAKULTATEKO LANGILEENTZAKO EKINTZAILETZAKO TREBAKUNTZA	61
5.	ENPRESA EDO ANTOLAKUNTZA ARLOKO PROFESIONALAK CURRICULUMAREN GARAPENEAN ETA EMATEN SARTZEA	62
6.	MISIOA ETA ESTRATEGIA.....	63
7.	POLITIKA ETA PROZEDURAK.....	64
8.	ZUZENDARITZA TALDEAREN BABESA.....	65
9.	ANTOLAKUNTZA-DISEINUA.....	66
10.	PRESTAKUNTZA ARAUTUA EKINTZAILETZAN	67
11.	EKINTZAILETZA AKADEMIKORAKO CURRICULUMAZ KANPOKO PRESTAKUNTZA	68
12.	METODOLOGIA AKTIBOAK	69
13.	NAZIOARTEKOTZEA.....	70
B ERANSKINA: LH ZENTROEN BERARIAZKO EMAITZAK		71
1.	LEGE- ETA ADMINISTRAZIO-TESTUINGURUA	71
2.	ENPRESA-TESTUINGURUA.....	72
3.	EKINTZAILETZARAKO FUNTSAK.....	73
4.	FAKULTATEKO LANGILEENTZAKO EKINTZAILETZAKO TREBAKUNTZA	74

5. ENPRESA EDO ANTOLAKUNTZA ARLOKO PROFESIONALAK CURRICULUMAREN GARAPENEAN ETA EMATEN SARTZEA	75
6. MISIOA ETA ESTRATEGIA.....	76
7. POLITIKA ETA PROZEDURAK.....	77
8. ZUZENDARITZA TALDEAREN BABESA.....	78
9. ANTOLAKUNTZA-DISEINUA.....	79
10. PRESTAKUNTZA ARAUTUA EKINTZAILETZAN	80
11. EKINTZAILETZA AKADEMIKORAKO CURRICULUMAZ KANPOKO PRESTAKUNTZA	81
12. METODOLOGIA AKTIBOAK	82
13. NAZIOARTEKOTZEA.....	83
C ERANSKINA: FAKULTATE TEKNOLOGIKOEN BERARIAZKO EMAITZAK.....	84
1. LEGE- ETA ADMINISTRAZIO-TESTUINGURUA	84
2. ENPRESA TESTUINGURUA	85
*Oharra: Fakultate teknologikoetan UNEKen heldutasun eredua erabili zen eta hor ez zen	
2.3 aldagaia kontuan izan.	85
3. EKINTZAILETZARAKO FUNTSAK.....	86
4. FAKULTATEKO LANGILEENTZAKO EKINTZAILETZAKO TREBAKUNTZA	87
5. ENPRESA EDO ANTOLAKUNTZA ARLOKO PROFESIONALAK CURRICULUMAREN GARAPENEAN ETA EMATEN SARTZEA	88
6. MISIOA ETA ESTRATEGIA.....	89
7. POLITIKAK ETA PROZEDURAK.....	90
8. ZUZENDARITZA TALDEAREN BABESA.....	91
9. ANTOLAKUNTZA-DISEINUA:.....	92
10. PRESTAKUNTZA ARAUTUA EKINTZAILETZAN	93
11. EKINTZAILETZA AKADEMIKORAKO CURRICULUMAZ KANPOKO PRESTAKUNTZA	94
12. METODOLOGIA AKTIBOAK	95
13. NAZIOARTEKOTZEA.....	96

TAULEN ZERRENDA

Taula 1 UNEK+era egokitutako ekintzailatza jardueren garapen-faktoreak.....	1
Taula 2: Mann Whitneyren U motako azterketa estatistiko konparatiboaren emaitzak, fakultate teknologikoak vs fakultate ez teknologikoak	37
Taula 3: Mann Whitneyren U motako azterketa estatistiko konparatiboaren emaitzak, fakultate ez teknologikoak vs LH zentroak	38
Taula 4: Erakunde moten estatistiko deskribatzaileen emaitza numerikoak	39
Taula 5: Fakultate ez teknologiko vs LH zentroetako aldagaien arteko aldeen azterketa zehatza	40
Taula 6: Mann Whitneyren U motako azterketa estatistiko konparatiboaren emaitzak, fakultate teknologikoak vs LH zentroak	42
Tabla 7: Fakultate teknologiko vs LH zentroetako aldagaien arteko aldeen azterketa zehatza ..	43
Taula 8: Azterketaren xede diren BHlen sailkapena, Gipuzkoako bi eskualdeetan	44
Taula 9: Mann Whitneyren U motako azterketa estatistiko konparatiboaren emaitzak, Donostialdeako BHI vs Deba Ibarrekoak	45
Taula 10: BHlen kokapenaren arabera estatistiko deskribatzaileen emaitza numerikoak.....	46
Taula 11: Donostialdeako eta Deba Ibarreko erakundeen aldagaien arteko aldeen azterketa zehatza	46
Taula 12: Mann Whitneyren U motako azterketa estatistiko konparatiboaren emaitzak, BHI publikoak vs pribatuak	48
Taula 13: BHIak publikoak edo pribatuak izatearen arabera estatistiko deskribatzaileen emaitza numerikoak.....	49
Taula 14: Erakunde publiko eta pribatu aldagaien arteko aldeen azterketa zehatza.....	50

GRAFIKOEN ZERRENDA

Grafikoa 1: Lege- eta administrazio-testuingurua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.....	5
Grafikoa 2: Enpresa-testuingurua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.	5
Grafikoa 3: Ekintzailetzarako funtsak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	6
Grafikoa 4: Fakultate ez teknologikoetako langileentzako ekintzailetzako trebakuntza.....	6
Grafikoa 5: Enpresa munduko profesionalak fakultate ez teknologikoetan sartzearen emaitzak	7
Grafikoa 6: Misioa eta estrategia fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	8
Grafikoa 7: Politikak eta prozedurak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	8
Grafikoa 8: Zuzendaritza taldearen babesa fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.....	9
Grafikoa 9: Antolakuntza-diseinua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	9
Grafikoa 10: Prestakuntza arautua ekintzailetzan fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	10
Grafikoa 11: Curriculumaz kanpoko prestakuntza ekintzailetzan fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	11
Grafikoa 12: Metodologia aktiboak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.....	11
Grafikoa 13: Nazioartekotzea fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	12
Grafikoa 14: Lege- eta administrazio-testuingurua LH zentroetan; emaitzak	13
Grafikoa 15: Enpresa-testuingurua LH zentroetan; emaitzak	14
Grafikoa 16: Ekintzailetzarako funtsak LH zentroetan; emaitzak	14
Grafikoa 17: LH zentroetako langileentzako ekintzailetzako trebakuntza; emaitzak.....	15
Grafikoa 18: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari LH zentroetan; emaitzak	15
Grafikoa 19: Misioa eta estrategia LH zentroetan; emaitzak.....	16
Grafikoa 20: Politikak eta prozedurak LH zentroetan; emaitzak	16
Grafikoa 21: Zuzendaritza taldearen babesa LH zentroetan; emaitzak	17
Grafikoa 22: Antolakuntza-diseinua LH zentroetan; emaitzak	17
Grafikoa 23: Prestakuntza arautua ekintzailetzan LH zentroetan; emaitzak.....	18
Grafikoa 24: Curriculumaz kanpoko prestakuntza ekintzailetzan LH zentroetan; emaitzak	18
Grafikoa 25: Metodologia aktiboak LH zentroetan; emaitzak	19
Grafikoa 26: Nazioartekotzea LH zentroetan; emaitzak	19
Grafikoa 27: Lege- eta administrazio-testuingurua fakultate teknologikoetan; emaitzak.	21
Grafikoa 28: Enpresa-testuingurua fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	21
Grafikoa 29: Ekintzailetzarako funtsak fakultate teknologikoetan; emaitzak	22
Grafikoa 30: Fakultate teknologikoetako langileentzako ekintzailetzako trebakuntza; emaitzak	22
Grafikoa 31: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari fakultate teknologikoetan; emaitzak	23
Grafikoa 32: Misioa eta estrategia fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	23
Grafikoa 33: Politikak eta prozedurak fakultate teknologikoetan; emaitzak	24
Grafikoa 34: Zuzendaritza taldearen babesa fakultate teknologikoetan; emaitzak	24
Grafikoa 35: Antolakuntza-diseinua fakultate teknologikoetan; emaitzak	25
Grafikoa 36: Prestakuntza arautua ekintzailetzan fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	25
Grafikoa 37: Curriculumaz kanpoko prestakuntza fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	26
Grafikoa 38: Metodologia aktiboak fakultate teknologikoetan; emaitzak	26
Grafikoa 39: Nazioartekotzea fakultate teknologikoetan; emaitzak	27
Grafikoa 40: Lege- eta administrazio-testuingurua Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	28

Grafikoa 41: Enpresa-testuingurua Gipuzkoako BHletan, alderaketa	28
Grafikoa 42: Ekintzailtzarako funtsa Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	29
Grafikoa 43: Fakultateko langileentzako ekintzailtzako trebakuntza Gipuzkoako BHletan, alderaketa	29
Grafikoa 44: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari, alderaketa.....	30
Grafikoa 45: Misioa eta estrategia Gipuzkoako BHletan, alderaketa	30
Grafikoa 46: Politikak eta prozedurak Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	31
Grafikoa 47: Zuzendaritza taldearen babesa Gipuzkoako BHletan, alderaketa	31
Grafikoa 48: Antolakuntza-diseinua Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	32
Grafikoa 49: Prestakuntza arautua ekintzailtzean Gipuzkoako BHletan, alderaketa	32
Grafikoa 50: Ekintzailtza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	33
Grafikoa 51: Metodologia aktiboak Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	33
Grafikoa 52: Nazioartekotzea Gipuzkoako BHletan, alderaketa.....	34
Grafikoa 53: Azpiegitura publikoen eta enpresen maila teknologikoaren arteko korrelazioa ...	51
Grafikoa 54: Enpresa-berrikuntza mailaren eta azpiegitura publikoen arteko korrelazioa.....	52
Grafikoa 55: Azpiegitura publikoen eta enpresen I+G aurrekontuen korrelazioa	52
Grafikoa 56: Azpiegitura publikoaren eta unibertsitatea-enpresa lankidetzaren-estrategiaren korrelazioa.....	52
Grafikoa 57: Azpiegitura publikoaren eta irakaskuntza eta ikerketa loturaren korrelazioa.....	53
Grafikoa 58: Azpiegitura publikoen eta metodologia aktiboak erabiltzearen arteko korrelazioa	53
Grafikoa 59: Ekintzailtza eguneko gai zerrendan egotearen eta enpresen maila teknologikoaren arteko korrelazioa	54

IRUDIEN ZERRENDA

Irudia 1: "Lege- eta administrazio-testuingurua" fakultate ez teknologikoetan azpi-irizpidearen emaitzak	58
Irudia 2: "Enpresa-testuingurua" fakultate ez teknologikoetan azpi-irizpidearen emaitzak.....	59
Irudia 3: "Ekintzailetzarako funtsak" fakultate ez teknologikoetan azpi-irizpidearen emaitzak	60
Irudia 4: "Fakultateko langileentzako ekintzailetzako trebakuntza" fakultate ez teknologikoetan azpi-irizpidearen emaitzak	61
Irudia 5: "Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeara" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak fakultate ez teknologikoetan	62
Irudia 6: "Misioa eta estrategia" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	63
Irudia 7: "Politikak eta prozedurak" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	64
Irudia 8: "Zuzendaritza taldearen babesa" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.....	65
Irudia 9: "Antolakuntza-diseinua" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	66
Irudia 10: "Prestakuntza arautua ekintzailetzan" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.....	67
Irudia 11: "Ekintzailetza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	68
Irudia 12: "Metodologia aktiboak" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	69
Irudia 13: "Nazioartekotzea" faktoreko azpi-irizpideak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak	70
Irudia 14: "Lege- eta administrazio-testuingurua" azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan ..	71
Irudia 15: "Enpresa-testuingurua" azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	72
Irudia 16: "Ekintzailetzarako funtsak" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	73
Irudia 17: "Fakultateko langileentzako ekintzailetzako trebakuntza" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	74
Irudia 18: "Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeara" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan.....	75
Irudia 19: "Misioa eta estrategia" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan.....	76
Irudia 20: "Politikak eta prozedurak" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan.....	77
Irudia 21: "Zuzendaritza taldearen babesa" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	78
Irudia 22: "Antolakuntza-diseinua" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan.....	79
Irudia 23: "Prestakuntza arautua ekintzailetzan" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	80
Irudia 24: "Ekintzailetza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza" faktoreko azpi-irizpideak azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	81
Irudia 25: "Metodologia aktiboak" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	82
Irudia 26: "Nazioartekotzea" faktoreko azpi-irizpidearen emaitzak LH zentroetan	83
Irudia 27: "Lege- eta administrazio-testuingurua" fakultate teknologikoetan azpi-irizpidearen emaitzak	84
Irudia 28: "Enpresa-testuingurua" azpi-irizpidearen emaitzak fakultate teknologikoetan	85
Irudia 29: "Ekintzailetzarako funtsak" azpi-irizpidearen emaitzak fakultate teknologikoetan...	86

Irudia 30: "Fakultateko langileentzako ekintzailetzako trebakuntza" azpi-irizpidearen emaitzak fakultate teknologikoetan	87
Irudia 31: "Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzea" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan.....	88
Irudia 32: "Misioa eta " faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak	89
Irudia 33: "Politikak eta prozedurak" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak	90
Irudia 34: "Zuzendaritza taldearen babesa" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak	91
Irudia 35: "Antolakuntza-diseinua" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak	92
Irudia 36: "Prestakuntza arautua ekintzailetzan" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	93
Irudia 37: "Ekintzailetza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak.....	94
Irudia 38: "Metodologia aktiboak" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak	95
Irudia 39: "Nazioartekotzea" faktoreko azpi-irizpideak fakultate teknologikoetan; emaitzak...	96

1. SARRERA

Txosten honetan UNEK+ Proiektuan lortutako emaitzen azterketa dago; bere xedea da Gipuzkoako goi-mailako hezkuntza-erakundeen (GMHE aurrerantzean), fakultate edota eskola ez teknologikoen eta lanbide heziketako zentroyen ekintzailletza akademikoaren heldutasun mailaren garapenari laguntzea eta horrela unibertsitatearen 3. zereginari ekarpena egitea, bere egungo egoeraren ebaluazioa oinarri hartuta.

UNEK proiektuan unibertsitate ekintzailearen balizko faktoreak identifikatu ziren. Faktore hauek identifikatuta, ekintzailletza akademikoaren heldutasun eredua diseinatu eta garatu zen. UNEK+ proiektuak heldutasun eredu hau GMHE guztien beharretara egokitu du eta balidazio gisa, barne-azterketa bat egin zen institutu politeknikoan eta Mondragon Unibertsitateko fakultate ez teknologikoetan eta zegozkien ekarpenak jaso eta egokitasuna baloratu ondoren, Gipuzkoako fakultate ez teknologikoetara eta lanbide heziketako zentroetara hedatu zen aplikazio-markoa.

Ondorengo taulan, ebaluatutako faktoreak eta bakoitzaren azpi-irizpideak daude:

Taula 1 UNEK+era egokitutako ekintzailletza jardueren garapen-faktoreak

FAKTOREA	AZPI-IRIZPIDEA
1. TESTUINGURU LEGAL ETA ADMINISTRATIBOA (eskualde mailan)	1.1 Legedia
	1.2 Finantzazioa
	1.3 Azpiegitura
2. ENPRESA-TESTUINGURUA	2.1 Finantzazioa
	2.2 Maila teknologikoa
	2.3 Teknologiaren heldutasuna (azaleratzen ari diren sektoreak)
	2.4 I+G aurrekontua
3. EKINTZAILLETZARAKO FUNTSAK	3.1 Ekintzailletzan irakasteko funtsak
	3.2 Ekintzailletzan ikertzeko funtsak
	3.3 Kapital hazia
4. EKINTZAILLETZAKO TREBAKUNTZA LANGILEENTZAT	4.1 Ekintzailletzako trebakuntza
	4.2 Transferentzia teknologikoa
	4.3 Spin-off delakoak sortzea
5. ENPRESAKO JENDEA CURRICULUMAREN GARAPENEAN ETA EMATEN SARTZEA	5.1 Fakultateko goi-gobernuan parte hartzea
	5.2 Garapenetan eta ematen parte hartzea
	5.3 Gonbidatutako irakasleak
6. MISIOA & ESTRATEGIA	6.1 Presentzia Misioan
	6.2 Helburuak

	6.3 Ezagutzaren transferentziari buruzko estrategia
	6.4 Unibertsitatea-enpresa lankidetzari buruzko estrategia
	6.5 Ekintzailletzari buruzko estrategia
	6.6 Gizarte-konpromisoaren garapenari buruzko estrategiak
	6.7 Emaizten jarraipena eta ebaluazioa
7. POLITIKAK & LEGEAK	7.1 Ezagutzaren transferentziari buruzko politikak eta prozedurak
	7.2 Unibertsitate-enpresa edo erakunde arteko lankidetzari buruzko politikak eta prozedurak
	7.3 Spin-off delakoak sortzeari buruzko politikak eta prozedurak
8. ZUZENDARITZA TALDEAREN BABESA	8.1 Ekintzailletzari babesa
	8.2 Ekintzailletzarako sarrerak
	8.3 Eguneko gai zerrendan duen presentzia
9. ANTOLAKUNTZA-DISEINUA	9.1 Irakaskuntza eta ikerketaren arteko lotura
	9.2 Erabakiak deszentralizatuta hartzea
	9.3 Bottom-Up egitura
	9.4 Autonomia ekonomikoa
10. PRESTAKUNTZA ARAUTUA EKINTZAILLETZAN	10.1 Konpetentziak curriculumean
	10.2 Ekintzailletzari buruzko berariazko programa
	10.3 Ikerketa
11. CURRICULUMAZ KANPOKO PRESTAKUNTZA	11.1 Ekintzailletzako sentsibilizazioa
	11.2 Aukeren identifikazioa
	11.3 Negozio-planaren garapena
	11.4 Spin-off delakoak argitaratzea
12. METODOLOGIA AKTIBOAK	12.1 Metodologia aktiboen erabilera
	12.2 Praktikak ekintzaileekin egitea
	12.3 Hezkuntza-baliabide berritzaileen diseinua eta garapena
13. NAZIOARTEKOTZEA	13.1 Partekatutako tituluak
	13.2 Ikerketa
	13.3 Sarrerak
	13.4 Mugikortasuna

Txostena hasteko, ezinbestekoa da GMHEak zer terminotan ebaluatu ziren azaltzea. Faktore bakoitza beraiekin zerikusia zuten azpi-irizpideen bidez ebaluatu ziren, goiko taulan ikusten den bezala (ikus Taula 1). Faktoreak eta bakoitzaren azpi-irizpideak zertan datzan zehatzago ikusteko, kontsultatu 1. ENTREGAGAIA, UNEK+era egokitutako ebaluazio-sistema, dagozkion azalpenak hor baitaude.

Ebaluazio-sistemak hiru maila ditu (behekoa, ertaina eta aurreratua). Beheko mailan %0tik 20erakoak daude, ertainean %30etik 70erakoak eta aurreratuan %80tik 100erakoak. Sailkapen honetatik abiatu eta azterketaren xede diren erakundeak faktore bakoitzarekiko zer mailatan dauden adieraziko da.

Ondorengo ataletan grafikoak daude eta faktore bakoitzean ebaluatutako azpi-irizpideen batez bestekoa ageri da; X ardatzean dago ebaluatutako fakultate bakoitza eta Y ardatzean 0tik 100erako ebaluazio-mailak. Faktoreei buruzko informazio zehatzagoa kontsultatzeko, begiratu eranskinak:

- A eranskina (58 or.) fakultate ez teknologikoentzat
- B eranskina (71 or.) LH zentroentzat
- C eranskina (84. or) fakultate teknologikoentzat

2. GOI-MAILAKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEEN EBALUAZIOAREN AZTERKETA

Atal honetan fakultate ez teknologikoen eta lanbide heziketako zentroen egungo egoera aztertzen da aipatutako heldutasun ereduari dagokionez. Azterketako markoa zabaldu asmoz, UNEK proiektuan fakultate teknologikoei buruz lortutako emaitzak ere jaso dira.

Hasteko, emaitza hauek hiru talde handitan sailkatu dira, hau da, aztertutako hiru erakunde mailatan; fakultate teknologikoak (UNEK), fakultate ez teknologikoak eta LH zentroak (UNEK+). Ondoren, hiru motatako erakundeetan lortutako emaitzen azterketa konparatiboa egin da (zehaztasun gehiagorako, ikus 2.4)

2.1 Fakultate ez teknologikoak


Fakultate ez teknologikoen kasuan, fakultate hauek aztertu dira:

- Zuzenbide Fakultatea (UPV-EHU)
- FIHEZI (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) (UPV-EHU)
- Erizaintzako Eskola (UPV-EHU)
- HUHEZI (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) (Mondragon Unibertsitatea)
- ETEO (Enpresa Zientzien Fakultatea) (Mondragon Unibertsitatea)
- Enpresaritza fakultatea (UPV-EHU)
- Deusto Business School (Deustuko Unibertsitatea)
- Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Deustuko Unibertsitatea)

Aztertutako 13 faktoreetako azpi-irizpide bakoitzean fakultate ez teknologikoetan egindako landa-lanaren ondorioz jasotako emaitzak kontsultatzeko, ikusi agiri honen amaierako A ERANSKINA.

2.1.1 Lege eta administrazio testuingurua


Gobernuaren eta administrazio publikoen esku hartzeaz (finantzazioa, azpiegitura eta ekintzailletza sustatzeko eta errazteko legeak) fakultateek duten pertzepzioa aztertzean, kasurik gehienetan pertzepzioa berdina da, Erizaintzako Fakultatean izan ezik, batezbestekoaren oso azpitik baitago. %65 inguruko balioak dira eta ETEOrentzat eta Deusto Business Schoolentzat %77koa da (ikus 1. grafikoa).



1. grafikoa: Lege- eta administrazio-testuingurua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.

2.1.2 Enpresa-testuingurua

Faktore honek aztertzen du fakultateek beren enpresa-inguruaz zer pertzepzio duten; hau da, enpresek berritzearen aldeko apustua egin duten, azaleratzen ari diren sektoreetan sartu diren, kapital hazia eskaintzen duten, maila teknologikoa, etab. Kasu honetan lortutako baloreak desberdinak dira, eta gehiena FIHEZIn %80 izan da. Oro har, %50eko balioak daude. (Ikus 2. grafikoa).




2. grafikoa: Enpresa-testuingurua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak.

2.1.3 Ekintzaitzarako funtsak

Fakultateak irakaskuntzako edo ikerketako ekintzaitzarako bideratzen dituen funtsei dagokienez, emaitzak desberdinak dira fakultatearen arabera. Zuzenbidean, Erizaintzan eta Enpresaritzan ez dago horrelako funtsik. UPV-EHUn horretarako funtsak ditu FIHEZIk, %13 bideratzen du. Ehuneko hauek handiagoak dira Mondragon Unibertsitatean: %100 HUHEZIn


eta %50 ETEOn; Deusturi dagokionez, %67 Deusto Business Schoolen kasuan eta %37 Gizarte eta Giza Zientzietan. (Ikus .3. grafikoa)



3. grafikoa: Ekintzailletzarako funtsak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.4 Fakultateko langileentzako ekintzailletzako trebakuntza


Ekintzailletza ekimenak sustatzeko langileei eskaintzen zaien trebakuntza aztertu du faktore honek. Aurreko faktorean bezala, Mondragon Unibertsitateko fakultateak nabarmentzen dira: portzentajerik handiena HUHEZIk du (%93) eta ETEOk %37; jarraian Deustuko Unibertsitatea dago, %50arekin bi fakultateetarako. Bestalde, faktore hau UPV-EHUko Erizaintzako Eskolan %13arekin dago. (Ikus 4. grafikoa).



4. grafikoa: Fakultate ez teknologikoetako langileentzako ekintzailletzako trebakuntza

2.1.5 Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzea


Fakultatean enpresa munduko adituen presentzia aztertzean ikusten denez bi fakultate nabarmentzen dira %100arekin; hain zuzen ere, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI eta Deusto Business School. Baliorik baxuenak FIHEZIn %0 eta Enpresaritzen %13 daude. Gainerako fakultateak %15 inguruan dabilta. (Ikus Grafikoa 5. grafikoa).



Grafikoa 5: Enpresa munduko profesionalak fakultate ez teknologikoetan sartzearen emaitzak

2.1.6 Misioa eta estrategia


Faktore honek aztertzen du erakundearen misioaren eta estrategiaren aitortzean ekintzailletza elementu giltzarritzat ote dagoen. Grafikoari begiratzuz gero ondorioztatzen da, alde nabarmenak dauden arren, faktore hau fakultate guztietan hartu dela kontuan, kasu guztietan emaitzak positiboak baitira. Emaitzarik baxuenak zuzenbide fakultatean eta FIHEZIn daude eta %90 baino goragotik daude Mondragon Unibertsitateko ETEO fakultatea eta Deusto Business School. (Ikus 6. grafikoa).



6. grafikoa: Misioa eta estrategia fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.7 Politikak eta prozedurak

Faktore honetan aztertzen dira politikarik eta prozedurarik baden eta zer eragin duten. Kasu honetan, UPV-EHUko FIHEZI fakultateak eta enpresaritzak ez dute ezagutza transferitzeko prozedurarik, ezta enpresekin lankidetzan aritzeko eta spin off delakoak sortzeko ere. Deusto Business School nabarmentzen da %90arekin. (Ikus 7. grafikoa).




7. grafikoa: Politikak eta prozedurak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.8 Zuzendaritza taldearen babesa

Faktore honek aztertzen ditu zuzendaritza taldeak duen buruzagitza eta kultura ekintzailearekiko duen ulermena eta babesa. Emaitzei begiratu gero, argi dago fakultate guztietan dagoela kontzientzia eta denek %20a gainditzen dutela. Kasu honetan HUHEZI nabarmentzen da, Mondragon Unibertsitatekoa, %100arekin, Mondragon Unibertsitateko


ETEO %87arekin eta Deusto Business School %90arekin. Emaitarik baxuenak enpresaritzan daude, %27arekin. (Ikus 8. grafikoa).



8. grafikoa: Zuzendaritza taldearen babesa fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.9 Antolakuntza-diseinua


Erakundearen antolakuntzaren arabera, jarrera ekintzaileak gehiago edo gutxiago erraztuko dira bertan. Lotura ona egon behar da irakaskuntzaren eta ikerketaren artean, erabakitzeko autonomia eta autonomia ekonomikoa, eta taldeko lana deszentralizatutako egitura baten barruan. Baliorik baxuenak enpresaritzan daude, %10, eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI nabarmentzen da %100ekin eta Deustuko bi fakultateak %83 eta %80rekin, hurrenez hurren. (Ikus 9. grafikoa).



9. grafikoa: Antolakuntza-diseinua fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.10 Prestakuntza arautua ekintzailatzan


Faktore honek aztertzen ditu curriculum akademikoetan eta ikerketaren eremuan pertsonak dituen berariazko konpetentziak (jokabideak, ezagutzak, trebeziak eta jarrerak) neurtzeko egindako jarduerak. Ekintzailletzako konpetentziak dira: buruzagitza, talde-lana, automotibazioa, berrikuntza, sormena, erabakiak hartzea, ekimena, ahalegina, etab. Emaizean ez da ageri ekintzailletzan araututako prestakuntzarik dagoenik zuzenbide fakultatean eta erizaintza eskolan. Deusto Business School nabarmentzen da, %100ean faktore honetan aztertutako azpi-irizpideekin, oso gertu du Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI %97arekin. (Ikus 10. grafikoa).



10. grafikoa: Prestakuntza arautua ekintzailletzan fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.11 Ekintzailletza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza


Faktore hau curriculumaz kanpo egindako prestakuntza jardueri buruzkoa da, ekintzailletzan sensibilizatzeko eta negozio-aukera berriak identifikatzeko egindakoak izan behar dira. Bereziki nabarmentzen da Deusto Business School %90arekin eta ikusten da zuzenbide fakultatean ez dela ekintzailletzari buruzko curriculumaz kanpoko jarduerarik egiten. (Ikus 11. grafikoa).



11. grafikoa: Curriculumaz kanpoko prestakuntza ekintzailtzan fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.12 Metodologia aktiboak

Metodologia aktiboak dagokienez, ikaskuntza prozesuen bidez ikasleek duten inplikazioa nabarmentzen da sormena, berrikuntza, pentsamendu kritikoa... bezalako konpetentziak lortzeko. Kokapenik onena Mondragon Unibertsitateko HUHEZIk du %100arekin eta jarraian ETEO eta Deusto Business School daude, biak %80arekin eta Deustuko gizarte eta giza zientzietako fakultatea %73arekin. Erizaintza eskolan ez da faktore honen ebidentziarik aurkitu. (Ikus 12. grafikoa).




12. grafikoa: Metodologia aktiboak fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

2.1.13 Nazioartekotzea

Atal honek nazioartekotzearen eta erakundearen arteko sinergiak aztertzen ditu ikuspegi akademikotik, ikertzailetik, sarreraren ikuspegitik eta erakundeko eragile desberdinen mugikortasunetik, hasi ikasleekin eta irakasle eta laguntzaileetara arte. HUHEZI fakultatea

nabarmetzen da %100arekin eta jarraian Deustuko gizarte eta giza zientzien fakultatea dago %95arekin. Ehunekorik baxuena erizaintza eskolan dago, %20. Deusto Business School ere toki onean dago %80arekin. (Ikus 13. grafikoa).



13. grafikoa: Nazioartekotzea fakultate ez teknologikoetan; emaitzak

Puntu honetatik aurrera, ez dira zehaztuko faktore bakoitzak aztertzen dituen zehaztapenak. Aurreko atalean faktoreak zehaztu dira, faktore bakoitzean aztertutako azpi-irizpideen informazioa Taula 1. taulan zehaztu da eta azalpen zehatzagoak nahi izanez gero, joan A ERANSKINERA.

2.2 LH zentroak


Aztertutako Lanbide Heziketa zentroetan lortutako emaitzak daude atal honetan. Zehatz esateko, zentro hauek aztertu dira:

- IEFPS EASO Politeknikoa GLHBI
- IES Xabier Zubiri Manteo BHI
- Pasaiako Itsas Arrantza BHI-Blas de Lezo
- IEFPS Bidasoa GLHBI
- Plaiaundi institutua-Irun
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP)
- IEFPS Aretxabaletako Lanbide Eskola (ALE) GLHBI
- IEFPS Armeria Eskola GLHBI
- IEFPS Miguel Altuna GLHBI
- IEFPS Usurbil GLHBI
- IES Fraisoro Nekazaritza Eskola BHI
- CEBANK-CDEA
- IEFPS Don Bosco GLHBI
- Salestarrak

Aztertutako 13 faktoreetako azpi-irizpide bakoitzean lanbide-heziketako zentroetan egindako landa-lanaren ondorioz jasotako emaitzak kontsultatzeko, ikusi agiri honen amaierako B ERANSKINA.

2.2.1 Lege- eta administrazio-testuingurua


Gobernuaren eta administrazio publikoaren parte hartzea desberdin hauteman da zentro bakoitzean. Legeak, finantzazioa eta zentroaren inguruan azpiegitura publikoak dauden pertzepziorik handiena Aretxabaletako Lanbide Eskolan (ALE aurrerantzean) dago, %83arekin, eta jarraian daude Armeria Eskola eta Mondragon Unibertsitateko Institutu Politeknikoa, %73arekin. Baliorik baxuena Salestarretan (%17) eta Plaiaundin (%23) lortu dira. (Ikus 14. grafikoa).



14. grafikoa: Lege- eta administrazio-testuingurua LH zentroetan; emaitzak

2.2.2 Enpresa-testuingurua


Enpresa-testuinguruari dagokionez, alde nabarmena dago Salestarretan (%8), beste zentroetan %50aren gainetik daude, ALE nabarmentzen da %80arekin. (Ikus 15. grafikoa).



15. grafikoa: Enpresa-testuingurua LH zentroetan; emaitzak

2.2.3 Ekintzailletzarako funtsak


Ekintzailletzarako funtsetan alde handiak daude. EASO politeknikoa, Miguel Altuna, Nekazaritza Eskola Zizurkil eta Salestarren kasuan ez dirudi ekintzailletzarako funtsik dagoenik. Usurbil GLHBI nabarmentzen da %80arekin. (Ikus 16. grafikoa).



16. grafikoa: Ekintzailletzarako funtsak LH zentroetan; emaitzak

2.2.4 Fakultateko langileentzako ekintzailletzako trebakuntza


Zentroetan langileentzat ematen den trebakuntzari dagokionez, baliorik baxuena Mondragon Unibertsitateko Institutu Politeknikoan daude (%3) eta CEBANK-CDEA eta Usurbil GLHBI nabarmentzen dira %80arekin. Miguel Altuna institutua hauengandik gertu dago %60arekin. Gainerako zentro guztiak %30 inguruan dabilta, batzuk gainera eta besteak azpitik daude. (Ikus 17. grafikoa).



17.grafikoa: LH zentroetako langileentzako ekintzailtza trebakuntza; emaitzak

2.2.5 Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeara

Landa-lan honetan jasotako datuen emaitzei begiratu gero ondorioztatzen da, eskala desberdinean izan arren enpresetako profesionalak badaudela aztertutako zentro guztietan. Mondragon Unibertsitateko Institutu Politeknikoan presentzia handiagoa da (%80) eta jarraian ALE dago (%63). Profesionalen presentzia txikiagoa da EASO politeknikoan, Zubiri Mantero BHIn, Plaiaundi institutuan eta Salestarretan, %10az azpitik daude denak. (Ikus 18. grafikoa).



18. grafikoa: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeara LH zentroetan; emaitzak

2.2.6 Misioa eta estrategia


Ekintzailtza helburu estrategikoetan sartzearen garrantziaren kontzientziaioari eta ezagutza transferitzeko estrategia desberdinak definitzeari eta enpresekin lankidetzan aritzeari buruzko kontzientziaioari dagokionez, kontzientzia hau badagoela ikusten da, izan ere, emaitza guztien batez bestekoa %55 da. Emaitzarik onenak hauek izan dira: Miguel Altuna, %80; Usurbil GLHBI, %77; ALE, %74 eta Nekazaritza Eskola, %70. Baliorik baxuenak Pasaiako Arrantza Eskola, Plaiaundi eta Don Boscon egon dira %29arekin. (Ikus 19. grafikoa).



19. grafikoa: Misioa eta estrategia LH zentroetan; emaitzak

2.2.7 Politikak eta prozedurak


Faktore honi dagokionez, Plaiaundi institutuan, CEBANK-CDEAn eta salestarretan ez da politikarik eta prozedurarik identifikatu ezagutzak transferitzeko, enpresekin lankidetzan izateko eta spin-off delakoak sortzeko. Emaitzarik onenak (%80) Mondragon Unibertsitateko Institutu Politeknikoan eta Usurbilgo GLHBIn izan dira. (Ikus 20. grafikoa).



20. grafikoa: Politikak eta prozedurak LH zentroetan; emaitzak

2.2.8 Zuzendaritza taldearen babesa


Ekintzailletza gaietan zuzendaritza taldeak duen inplikazioa handia da Bidasoa LHn (%80) eta kontzientzia hau hedatuta dagoela ikusten da zentro guztietan, emaitza guztien batez bestekoa %50 baita. (Ikus 21.grafikoa).



21. grafikoa: Zuzendaritza taldearen babesa LH zentroetan; emaitzak

2.2.9 Antolakuntza-diseinua


Jokaera ekintzailea sustatzeko zentroen antolakuntzari dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Institutu Politeknikoa aitzindaria da (%95) eta jarraian dago Usurbilgo GLHBI %80arekin. Diseinu tradizionalagoa dute Plaiaundi institutuak eta Miguel Altunak, %18 eta %17arekin, hurrenez hurren. (Ikus 22. grafikoa).



22. grafikoa: Antolakuntza-diseinua LH zentroetan; emaitzak

2.2.10 Prestakuntza arautua ekintzailletzan


Emaitzak aztertuz gero ikusten denez, zentro guztietan dago ekintzailletzako prestakuntza arautua, batez beste %65arekin. Miguel Altuna da nagusi, %100, eta jarraian Bidasoako LH zentroa dago, %93. Plaiaundi da baliorik baxuena lortu duena, %40 baino ehuneko txikiagoarekin. (Ikus 23. grafikoa).



23. grafikoa: Prestakuntza arautua ekintzailletzan LH zentroetan; emaitzak

2.2.11 Ekintzailletza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza


Curriculumaz kanpo ekintzailletzan egiten den prestakuntza aztertzen duen faktoreari dagokionez, emaitzak ez dira aurreko kasuan bezain egonkorak. Zentro batzuk batez bestekoaren azpitik daude, adibidez, Plaiaundi Institutua eta EASO Politeknikoa. Bidasoako LH zentroa eta Don Bosco bereizten dira %65arekin. (Ikus 24. grafikoa).



24. grafikoa: Curriculumaz kanpoko prestakuntza ekintzailletzan LH zentroetan; emaitzak

2.2.12 Metodologia aktiboak

Aztertutako zentro guztietan erabiltzen dituzte metodologia aktiboak. Kasu honetan LH Bidasoa nabarmentzen da %77arekin eta jarraian Nekazaritza Eskola dago %70arekin. Plaiaundi institutua da baliorik txikiena lortu duena faktore honetan, %7. (Ikus 25. grafikoa).



25. grafikoa: Metodologia aktiboak LH zentroetan; emaitzak

2.2.13 Nazioartekotzea

LH zentroen nazioartekotzeari dagokionez, Miguel Altuna da nagusi (%75) eta jarraian Bidasoako LH Zentroa dago (%55) eta hirugarren tokian daude %50 ingururekin Armeria Eskola, Usurbilgo GLHBI eta CEBANK-CDEA. Pasaiaiko Itsas Arrantza BHIn ez dago faktore hau. (Ikus 26. grafikoa).



26.grafikoa: Nazioartekotzea LH zentroetan; emaitzak

2.3 Fakultate teknologikoak

Atal honetan UNEK proiektuko landa-lanean lortutako emaitzak daude. Fakultate teknologiko hauek aztertu ziren:


- TECNUN (Nafarroako Unibertsitatea)
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (GET) (UPV-EHU)
- Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (UPV-EHU)
- IMH, Elgoibar (UPV-EHU)
- Donostiako Politeknika (UPV-EHU)
- Informatika Fakultatea (UPV-EHU)
- Kimika Fakultatea (UPV-EHU)
- Goi Eskola Politeknika (GEP) (Mondragon Unibertsitatea)

Aurrez esan bezala, UNEKen erabili zen heldutasun eredura egokitu da proiektu honetan erabili dena. UNEK+ proiektuan ez da galdesorta hau berriro pasa egokituta fakultate teknologikoetan, beraz, ez dago emaitzarik hiru aldagaitan, zehatz esateko, 2.3, 6.6 eta 13.4 aldagaietan, hiru aldagai hauek UNEK+ proiektuan gehitu baitira. Honen ondorioz, balio baxuagoak lortu dira 2 (enpresa-testuingurua), 6 (presentzia misioan) eta 13 (nazioartekotzea) faktoreetan, baina aldeak ez dira esanguratsuak.

Aztertutako 13 faktoreetako azpi-irizpide bakoitzean fakultate teknologikoetan UNEKen esparruan egindako landa-lanaren ondorioz jasotako emaitzak kontsultatzeko, ikusi agiri honen amaierako C ERANSKINA.

2.3.1 Lege- eta administrazio-testuingurua


Gobernuaren eta unibertsitatearen arteko erlazioari dagokionez, batez bestekoaren gainetik daude Arkitektura Goi Eskola Teknikoa eta Goi Eskola Politeknika %73arekin. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola batez bestekoaren azpitik dago elementu guztietan eta aztertutako gainerako fakultateekin alderatuz gero, ehunekorik baxuena berak lortu du. (Ikus 27. grafikoa).



27. grafikoa : Lege- eta administrazio-testuingurua fakultate teknologikoetan; emaitzak.

2.3.2 Enpresa-testuingurua


Fakultate teknologikoen inguruko enpresa-garapenak lortutako onurei dagokienez, informatikako fakultatea nabarmentzen da besteeikiko eta %60a gainditu du. Gainerako fakultateak %40 eta 50 artean daude eta emaitzarik okerrean kimikakoak lortu ditu %33arekin. (Ikus 28. grafikoa).



28. grafikoa: Enpresa-testuingurua fakultate teknologikoetan; emaitzak.

2.3.3 Ekintzailletzarako funtsak


Emaitzak anitzagoak dira kasu honetan. Tecnunek eta UPV-EHuko Kimika Fakultateak %70 eta %60 lortu dute, hurrenez hurren, eta Elgoibarko IMHk %0; gainerako fakultateak %10az azpitik daude. (Ikus 29. grafikoa).



29. grafikoa: Ekintzailletzarako funtsak fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.4 Ekintzailletzarako trebakuntza langileentzat

Ekintzailletzarako trebakuntzaren kasuan hiru fakultate batez bestekoaren gainetik daude: Arkitektura Goi Eskola Teknikoa eta Informatika Fakultatea %33 eta %30arekin eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola %20arekin. Gainerako fakultateak batez bestekoaren azpitik daude. (Ikus 30. grafikoa).




30. grafikoa: Fakultate teknologikoetako langileentzako ekintzailletzako trebakuntza; emaitzak

2.3.5 Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeara

Erakundeetan enpresa-munduko profesionalak duten presentziari dagokionez, Informatikako Fakultateak ez du faktore honen arrastorik eta %0 lortu du. Arkitektura Goi Eskola Teknikoa nabarmentzen da %87arekin eta jarraian IMH dago %80arekin.


Bigarren tokian daude Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa eta Tecnun %70 eta %67arekin, hurrenez hurren. (Ikus 31. grafikoa).



31. grafiko: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.6 Misioa eta estrategia

Misioan eta estrategietan dagoen ekintzailtzaren presentziari dagokionez, batez bestekoaren azpitik daude fakultate hauek: Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola, Donostiako Eskola Politeknikoa eta Informatikako Fakultatea. %70a baino gehiagorekin nabarmentzen dira: Arkitektura Goi Eskola Teknikoa eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa. (Ikus 32. grafikoa).




32. grafiko: Misioa eta estrategia fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.7 Politikak eta prozedurak

Politikei eta prozedurei dagokienez, bere balio baxuengatik nabarmentzen da


Donostiako Eskola Politeknikoa; aldiz, beste muturrean daude Nafarroako Unibertsitatea (%87), Kimikako Fakultatea (%80) eta Elgoibarko IMH (%70). (Ikus 33. grafikoa).



33. grafikoa: Politikak eta prozedurak fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.8 Zuzendaritza taldearen babesa


Zuzendaritza taldearen babesari dagokionez, ikuspegi orokor batetik begiratzuz gero antzeko balioak daude, hasi %40arekin eta %80ra arte. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa maila horretatik kanpo dago %30arekin eta IMH nabarmentzen da %80arekin. (Ikus 34. grafikoa).



34. grafikoa: Zuzendaritza taldearen babesa fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.9 Antolakuntza-diseinua


Antolakuntza-diseinuari dagokionez, aitzindariak dira Nafarroako Unibertsitatea %100arekin eta UPV-EHUko Kimika Fakultatea, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin batera %95arekin. (Ikus 35. grafikoa).



35.grafikoa: Antolakuntza-diseinua fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.10 Prestakuntza arautua ekintzailletzan


Ekintzailletzako prestakuntza arautuari dagokionez, fakultate teknologikoek balio nahiko baxuak lortu dituzte. Informatikako eta Kimikako fakultateek %0 lortu dute. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak eta Donostiako Eskola Politeknikoak balio baxuak dituzte, %10 ingurukoak. Tecnun da nagusi %57arekin eta jarraian Arkitekturako Goi Eskola %53arekin. (Ikus 36. grafikoa).



36. grafikoa: Prestakuntza arautua ekintzailletzan fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.11 Curriculumaz kanpoko prestakuntza


Ekintzailatzarekin lotutako curriculumaz kanpoko prestakuntzari dagokionez, oro har balio baxuak daude eta altuena Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak du %50 soilarekin. Gainerako guztiak %40az azpitik daude eta IMG eta Donostiako Eskola Politeknikoa %10ean. (Ikus 37. grafikoa).



37. grafikoa: Curriculumaz kanpoko prestakuntza fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.12 Metodologia aktiboak


Metodologia aktiboen faktorean emaitza hobeak daude, eta batez bestekoa %48koa da. Alde handia dago baliorik handienaren eta txikienaren artean. Handiena Tecnunek du, %70, eta txikiena Donostiako Eskola Politeknikoak, %7. Tecnunen antzeko balioak dituzte Arkitektura Goi Eskola Teknikoak (%67) eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak (%63). Erdibidean daude Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola, Elgoibarko IMH eta UPV-EHuko Informatika Fakultatea (%50). (Ikus 38. grafikoa).



38.grafikoa: Metodologia aktiboak fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.3.13 Nazioartekotzea

Nazioartekotzeari dagokionez, batez bestekoaren gainetik daude Tecnun, Arkitektura Goi Eskola Teknikoa, UPV-EHUko Kimika eta Informatika fakultateak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa, denak ere %60az goitik. Bigarren tokian daude Donostiako Eskola Politeknikoa, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola eta Elgoibarko IMH %30etik %10era bitartean.




39. grafikoa: Nazioartekotzea fakultate teknologikoetan; emaitzak

2.4 Hiru erakunde moten konparatiboa

Atal honetan grafikoki erakusten dira faktore bakoitzean lortutako batez besteko puntuazioa erakunde motaren arabera sailkatuta, hau da, fakultate ez teknologikoak, LH zentroak eta fakultate teknologikoak.

2.4.1 Lege- eta administrazio-testuingurua


Lege- eta administrazio-testuinguruari dagokionez, emaitzak antzekoak dira hiru kasuetan, nahiz eta 4 puntu gutxiagoko bariazio txiki bat egon LH zentroen kasuan. Emaitzak %52 eta 57 artean daude. (Ikus 40. grafikoa).



40. grafikoa: Lege- eta administrazio-testuingurua Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.2 Enpresa-testuingurua


Enpresa-testuinguruari dagokionez, LH zentroetan apur bat gehiagotan uste dute elkarrekintzan dabilzan erakundearen jardura sektore berean edo antzekoan dabilzala enpresak. Emaitzak %46 eta 49 artean daude. (Ikus 41. grafikoa).



41. grafikoa: Enpresa-testuingurua Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.3 Ekintzailletzarako funtsak


Faktore honetan fakultate ez teknologikoak nabarmentzen dira 12 puntuko aldearekin, gainerako BHietan %21eko %33ko ehunekoa lortu da. (Ikus 42. grafikoa).



42. grafikoa: Ekintzailletzarako funtsa Gipuzkoako BHietan, alderaketa

2.4.4 Fakultateko langileentzako ekintzailletzako trebakuntza


Fakultateko langileentzako ekintzailletzako trebakuntzari dagokionez, baliorik baxuena fakultate teknologikoetan dago (%14), jarraian fakultate ez teknologikoak daude (%30) eta aitzindariak dira LH zentroak (%37). (Ikus 43. grafikoa).



43. grafikoa: Fakultateko langileentzako ekintzailletzako trebakuntza Gipuzkoako BHietan, alderaketa

2.4.5 Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari


Kasu honetan enpresa-munduko profesionalen presentzia handiagoa da unibertsitateko fakultate teknologikoetan eta ez teknologikoetan. Ehuneko hori txikiagoa da LH zentroetan (%35), unibertsitateko fakultateetan %50-52 bitartean dagon. (Ikus 44. grafikoa).



44. grafikoa: Enpresa edo antolakuntza arloko profesionalak curriculumaren garapenean eta ematen sartzeari, alderaketa

2.4.6 Misioa eta estrategia


Ekintzaitza eta honi lotutako jarduerak misioan eta erakundeko estrategia desberdinetan sartzeari dagokionez, 7-8 puntuko aldea dago lehenengo postua lortu duten fakultate ez teknologikoekiko. (Ikus 45. grafikoa).



45. grafikoa: Misioa eta estrategia Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.7 Politikak eta prozedurak


Ekintzailtza eta berarekin zerikusia duten jokabideei buruzko politikak eta prozedurak egoteari dagokionez, fakultate teknologikoak nabarmendu behar hasteko, fakultate hauetan prozedura gehiago baitaude, %16-18 arteko aldearekin. (Ikus 46. grafikoa).



46. grafikoa: Politikak eta prozedurak Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.8 Zuzendaritza taldearen babesa


Zuzendaritza taldeak erakundearen barruan ekintzaileri ematen dion babesari eta inplikazioari dagokionez, emaitzak positiboak dira balio altuak lortu baitira hiru kasuetan, hau da, Gipuzkoako BHletan kontzientzia dago zuzendaritzatik. Fakultate ez teknologikoak lehenengo tokian daude %63arekin, jarraian teknologikoak %57arekin eta LH zentroak %49arekin. (Ikus 47. grafikoa).



47. grafikoa: Zuzendaritza taldearen babesa Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.9 Antolakuntza-diseinua


Faktore honetan lortutako balioak dira orain arteko altuenak ikerketa honetarako kontuan izan diren hiru erakunde moten batezbestekoetan. Fakultate teknologikoek %75 dute, ez teknologikoek %66 eta ehuneko apur bat txikiagoa LH zentroek, %52. (Ikus 48. grafikoa).



48. grafikoa: Antolakuntza-diseinua Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.10 Prestakuntza arautua ekintzailletzan


Ekintzailletza gaietan ematen den prestakuntza arautuan emaitzak heterogeneoagoak dira. LH zentroak nabarmentzen dira %65arekin, jarraian fakultate ez teknologikoak daude (%55) eta amaitzeko fakultate teknologikoak (%28). (Ikus 49. grafikoa).



49. grafikoa: Prestakuntza arautua ekintzailletzan Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.11 Ekintzailletza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza


Curriculumaz kanpoko prestakuntzari dagokionez, ez da aurreko patroia errepikatu, kasu honetan fakultate ez teknologikoak daude lehenengo postuan (%42) jarraian LH zentroak (%40) eta aurreko kasuan bezala, ehuneko txikiena fakultate teknologikoek dute (%25). (Ikus 50. grafikoa).



50. grafikoa: Ekintzailletza akademikorako curriculumaz kanpoko prestakuntza Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.12 Metodologia aktiboak


Metodologia aktiboak dagokienez, fakultate ez teknologikoak dira nagusi, batez beste %58 erabiltzen baitituzte. Fakultate teknologikoak eta LH zentroek %48 eta %47ko batez bestekoa dute, hurrenez hurren. (Ikus 51. grafikoa).



51. grafikoa: Metodologia aktiboak Gipuzkoako BHletan, alderaketa

2.4.13 Nazioartekotzea

Azkeneko faktore honetan alde nabarmena dago unibertsitateko fakultateen eta LH zentroen artean. Unibertsitate arloan nazioartekotze programa gehiago dago eta fakultate teknologikoak dira aitzindari %63arekin. (Ikus 52. grafikoa).



52. grafikoa: Nazioartekotzea Gipuzkoako BHletan, alderaketa

Hiru erakunde motekin alderatuaz emaitzak aztertu ondoren, planteatutako emaitzetan aldeak daudela dirudi. Aldiz, alde hauek esanguratsuak ote diren ikusteko eta erakunde mota bat besteak baino ekintzaileagoa ote den aztertzeko, jasotako datuen azterketa estatistikoa egin da ondorengo atalean ikusten den bezala.

3. EMAITZEN AZTERKETA ESTATISTIKOA

8 fakultate teknologiko, 14 LH zentro eta 8 fakultate ez teknologikoko laginetik abiatu eta azterketa estatistikoa egin da, emaitzetan dauden aldeak estatistikoki esanguratsuak ote diren ikusteko.

Hiru azterketa desberdin egin dira, baldintza desberdinen arabera. Hasteko, erakunde motaren arabera alderik ba ote dagoen aztertu da, hau da, alde esanguratsurik ba ote dagoen fakultate teknologikoa, ez teknologikoa edo LH zentroa izatearen arabera. Bigarrenik, fakultateen kokapenaren arabera alderik badagoen aztertu da, eta horretarako bi eskualde handitan sailkatu dira: Donostialdea eta Deba Ibarra. Amaitzeko, BHI publiko eta pribatuen artean alderik badagoen aztertu da. Alde horiek aztertzeko, landa-laneko emaitzetatik abiatu da eta laginaren neurria txikia denez gero, bi lagin independenteren proba ez parametrikoa egin da Mann Whitneyren U estatistikoa erabiliaz SPSS software bidez (ikus 3.1 atala).

Bestalde, heldutasun ereduan aztertutako aldagaien artean sinergiak aurkitzeko, aldagai desberdinen arteko korrelazioen azterketa egin da. Azterketa hau egiteko, aldagai biko korrelazioak erabili dira Pearsonen korrelazio koefizientearekin. Ondorengo atalean deskribatu dira aztertutako korrelazioetan lortutako ondorioak (Ikus 3.2 atala).

3.1 Erakundeen arteko aldeen azterketa

Aurrez aipatu bezala, hiru kasuistika desberdin aztertu dira eta jarraian zehaztuta daude.

3.1.1 Erakunde motaren arabeko aldeak

3 motatako fakultateen arteko alderaketak egin dira eta kasuistika honen barruan balizko beste 3 kasu ere aztertu dira ondorengo ataletan zehazten den bezala (ikus 3.1.1.1, **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** eta 3.1.1.3).

Unibertsitateko fakultateei dagokienez, **aztertutako faktoreetan ez dago alde esanguratsurik fakultate teknologikoen eta ez teknologikoen artean.**

Aldiz, **fakultate teknologikoek eta ez teknologikoek aldeak dituzte LH zentroekin alderatuz gero faktore batzuetan.** Kasu bietan 8 aldagaitan daude aldeak, baina aldagai horiek desberdinak dira kasu batetik bestera (ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** eta 3.1.1.3 atalak)

Alde esanguratsuak daude esangura asintotiko estatistikoaren balioa (aldebia) 0.05 baino txikiagoa denean, horrek esan nahi baitu %95eko aukera dagoela azterketaren xede diren aldagaien artean alde esanguratsuak egoteko.

3.1.1.1 Unibertsitateko fakultate teknologikoen eta ez teknologikoen azterketa konparatiboan lortutako emaitzak

Esan bezala, azterketako datuek alde esanguratsurik ez dagoela adierazten dute. Jarraian taula bat dago (ikus 2. taula) aipatutakoa ikusteko. Taula horretan guztira aztertutako 45 faktoreak laburtu dira eta esanahi asintotiko aldebikoaren aztertu beharreko zatia nabarmendu da (lauki gorria). Ikusi daitekeenez, **balio bat bera ere ez da 0.05 baino txikiagoa, beraz, ez dago alde esanguratsurik ekintzailletza sustatzen duten faktoreetan fakultatea teknologikoa edo ez teknologikoa izatearen arabera.**

3.1.1.2 Unibertsitateko fakultate ez teknologikoen eta LH zentroen azterketa konparatiboan lortutako emaitzak

Bestalde, fakultate ez teknologikoen eta LH zentroen artean alde esanguratsurik ote dagoen aztertu da aurreko kasuan erabilitako metodo berdinari jarraituaz (ikus 3.1.1.1 atala). 3. taulan dago azterketa horietan lortutako emaitzen laburpena.

Oharra: Emaitzei dagokienez, fakultate teknologikoak sartu diren azterketetan aldagai batzuk ezin izan dira aztertu 2.3 atalean esan bezala. Fakultate teknologikoak sartu diren azterketetan 45 aldagai aztertu dira, azpi-irizpide guztiak barne eta gainerako kasuetan 48 aldagai aztertu dira.

